


HABE

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren JOXE LANDAren eguraldi iragarpena entzungo duzu.

Entzun gaia behin entzungo duzu.
Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.



Aukeratu erantzun zuzena:

1. *Gaurko eguraldi iragarpena:*

- a. Itsasaldeko haizea espero da eta gero eta eguraldi freskoagoa.
- b. Zerua gero eta lainotuagoa egongo da egunean zehar.
- c. Eguraldia ez da ona izango, baina hobera egingo du arratsalderako.

2. *Ostiraleko iragarpena:*

- a. Goizean bero eta oskarbi; arratsalde-iluntzerako hodeiak eta euri arriskua.
- b. Egun osoa lainotua, iluntzean bereziki.
- c. Goizean hodeitsu, arratsaldean hobera.

3. *Larunbateko iragarpena:*

- a. Eguraldi beroa izango da egun osoan zehar.
- b. Eguraldia nahastu egingo da, gauerako ekaitza.
- c. Eguraldia baretu egingo da, gauerako tenperatura goxoak.

4. *Igandeko iragarpena:*

- a. Goizean oraindik nahasi samar, baina arratsalderako hobera.
- b. Egun osoan goibel egongo da.
- c. Goizean bero, baina iluntzerako berriro ekaitz arriskua.

5. *Lau egunetarako iragarpena kontuan hartuta,*

- a. denetatik izango da
- b. oso eguraldi ona egingo du.
- c. eguraldia txarra izango da.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---